

## ENKARTERRI / ENCARTACIONES

Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskal Filologian lizentziatua, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzorde idazkari denak,

### EGIAZTATZEN DU:

Onomastika batzordeak, Iruñeko ordezkartitzan apirilaren 16an egindako bilkuran, beste gai batzuen hartean honako hau aztertu eta erabaki zuela.

Bizkaiko Foru Aldundiak hauteskunde barrutien euskal izenez egindako eskaera aztertzen da. Batzordeak aurreko honako hauek hobesten ditu:

1. **Enkarterri / Encartaciones.** Edukiari dagokionez esan behar da hartzen dituen 20 udalerrietatik 18 historikoki eskualde historiko horretakoak izan direla, Barakaldo ere bai XV. mende arte, Alonsotegi udal berria delarik. Euskal izenari buruz ordea badago zer esanik. Euskaldunen artean erabilitako izena *Enkartazioak* izan bada ere, *Enkartazioetan*, *Enkartazioetatik*, etab. deklinaturik, azken urteotan *Enkarterri* izena nagusitu da, inoiz pluralean emanda, *Enkarterriak*. Azken izen hau pluralean zein sinugarrean erabili, izan da, gaztelaniazkoa bezala izan ere, *Encartaciones* ondoan *Tierra Encartada* eta *La Encartación* ere erabili izan dira. Kontuan izanik euskaraz *tierra* edo *territorio* adierazteko *herri* erabili izan dela, eta Bizkaiko toponimian izen hau artikulurik gabe agertzen dela: *Txorierrri* (*tierra o país de pájaros*, Miguel de Unamuno eta Mikel Zarateren hitzetan), *Goierrri* (Gipuzkoako eskualdea eta Bizkaiko zenbait udaletan gorengo auzoa), *Baserrri* (Leioa eta Getxoko barrualdea), *Marinerrri* (Leioako itsasadar alde), *Beterri* (Gipuzkoako eskualdea), *Lizarerrri/Estellerrri* (Nafarroako merinaldea), etab. K. Mitxelena eta Txillardegik *Enkarterri* formaren erabilera agertzen dute. Batzordeak *Enkartazioak* izen tradiziokoarekin batera **Enkarterri** izena onetsi zuen.

2. **Bilbo / Bilbao.** Izena onargarria da zeren eta hiriburuaren izena eta eremua bakarrik hartzen baitu.

3. **Durango-Arratia.** Izen egokia da zeren eta bi merinalderen izenak hartzen baititu eta euskal izen egokiak baitira. Ereduari buruz esan behar da gehiengo horkoa zela.

4. **Busturia-Urbe.** Aurreko kasuetan bezala izen egokiak dira bai hizkuntza aldetik, euskal toponimoak baitira, baita historia aldetik ere, udalerriguztiak, bi salbu, merinalde horietakoak baitziren.

Bilbo, mila bederatzirehun eta lauregeita hemeretziko apirilaren hemeretziaren.

Mikel Gorrotxategi Nieto,  
Onomastika batzordeko idazkaria